

BATZAR NAGUSIEN EZOHIKO BILKURA ALTZO-AZPIN

2025-10-15

MILA URTE IPUSCUATIK GIPUZKOARA: IRAGANETIK ETORKIZUNERANTZ

“Euskal demokrazia-eredua eta euskal identitatea” balioetsi ditu Ezeizabarrena Batzar Nagusietako lehendakariak etorkizuna eraikitzeko, “euskara, berdinzaletasuna, giza duintasuna” eta “gure askatasuna bermatu eta erabakimenerako bitarteko politikoak” oinarrian jarritz

Altzo-Azpin Gipuzkoako Batzar Nagusiek egin duten Ezohiko Bilkuran Imanol Pradales lehendakaria izan da, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako herri-ordezkaritza zabalarekin batera

Goizeko hamarretarako Batzar Nagusietako lehendakari, Xabier Ezeizabarrena, eta Mahaiko kideak hartu ditu Xabier Olano Altzoko alkateak, eta Imanol Pradales lehendakaria heldu denean, aginte makila eman dio. Ohorezko aurreku ostean eta Bilkura berezia hasi aurretik, Ezeizabarrena presidentea, Olano alkatea, Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusia eta Pradales lehendakaria Batzar Nagusien Ohorezko Liburuan sinatzera jaitsi dira antzinako San Salvador eliza erromanikora, XVI. mendeko tenpluaren azpian dagoena.

Bilkura berezian ehundik gora herri-ordezkarik elkartu dira, batzarkideak eta hauen bozeramaileak, EH Bilduko Maddalen Iriarte, EAJ-PNVko Euge Arrizabalaga, PSE-PSOeko Alberto Albistegi, Mikel Lezama PPkoa eta Miren Etxebeste Elkarrekin Podemosekoa; baita Foru Gobernuak kideak, Gipuzkoako 51 alkate, hala nola Bakartxo Tejeria eta Unai Hualde Legebiltzarreko eta Nafarroako Parlamentuko presidentek; Ana Otadui eta Irma Basterra, Bizkaiko eta Arabako Batzar Nagusietako buruak; hiriburuetatik, berriz, Eneko Goia Donostiako alkatea eta Joseba Asiron Iruñekoak.

Xabier Ezeizabarrena iraganetik datozen “euskal identitateaz eta euskal demokrazia ereduaz” aritu da bere hitzaldian. “Euskal nortasunaren ezaugarriak eguneratzea” da “etorkizuna eraikitzeko bidea”, baita “adimen artifizialaren garaian” ere, herri barruko aldaketei erantzuteko eta munduan izaten jarraitzeko.

Euskara ziurtatzeko zeregin politikoa

Identitate ezaugarrien artean, “lehenbizi, euskara” esan du Ezeizabarrenak, Koldo Mitxelena hitzekin: “Euskal Herria gaur egun herri kontzientziarekin baldin bada, batez ere hizkuntzari zor zaio; euskara euskal herriaren historia bizia da”. Hortaz, ondare bizia den hizkuntza “biziberritzea eta



euskaldunak euskaraz egin ahal izatea ziurtatzea da herri-ordezkarion zeregin politikoa XXI. mendean”, ondorioztatu du.

“Berdinzaletasuna” ere euskal identitatearen ezaugarri nabarmena da antzinako garaietatik, izan ere “giza duintasunaren bidez jorratutako euskal demokrazia-ereduan denak berdintzea aukeratu zuten euskaldunek, baina ez beheraka, goraka baizik” eta, “denak parekide”. “Berdinzaletasun hau akuilu izan daiteke gaur egun ere”, adibidez, “emakumearen alde egiteko”, iraganean hemen “emakumearen berdintasuna beste alde batzuetan baino aurreratuago zegoela” jakinik.

Identitate balioekin aurrera jauzia, indarkeriarekin ezik

Ezeizabarrenaren arabera, “identitatea ez da globalizazioko aniztasunaren aurkakoa, alderantziz baizik”; identitate honen kontra “uniformizazioa bilatzen dutenak jartzen dira”, baina “beren nortasuna aditzera tzen dute”; “guk ere eskubide bera dugu, gure erakunde propioen gerizpean garatzen joandako bizimodu kolektiboa izaten jarraitzeko”. Gainera, etorkin asko datorren honetan, “elkartuko gaituen identitatea behar dugu”, eta “euskal nortasunaren alderdi horiek lagungarri” ditugulakoan da foru erakundeko burua. “Balio horien gainean jauzi bat egin dezakegu orain ere, eta zutik geratu, aurrera egiteko gai”, adierazi du, Joxemiel Barandiaranek esandakoaren haritik.

“Denak ez du balio”, ordea, identitate kontuan. Gaur egun “indarraren legea ezartzen denean Ukrainan Errusiaren eraso-gerrarekin eta Gazan Israelek palestinarren genozidioa eginez, mezu gaiztoa bidaltzen da”, izan ere, “indarkeria ez da inoiz bide ona, bide itsua da”, dio Ezeizabarrenak. “Bortxazko bideek ez digute elkarrekin identifikatzen uzten, zatitu egiten dute herria eta atzerakada eragiten. Baztertu beharreko identitatea da indarkeria, ondo asko dakigunez”, ziurtatu du.

Herri izateko nahiari erantzuteko erakundetzea

Batzar Nagusietako lehendakariak aditzera eman duenez “herri izateari eutsi badiogu, euskal herri izateko nahia oso indartsua delako da” eta “aldi berean, herriari eutsi dioten bitarteko politiko garrantzitsuak izan ditugulako, gure askatasuna bermatzeko eta erabakimena bideratzeko: euskal foruak, ez emanak, eskubideak baizik”. Hori esanik, “eskubide historikoak, Konstituzionalismo aurrekoak” aipatu ditu, “euskal demokraziaren iturria aintzat harturik eta eguneratzeko prest Europar Batasunari begira”.

Batzar Nagusietako lehendakariak erakundeei arreta jarriz azaldu du “jendea defenditzeko eta bere buruaren jabe izateko borondate askearekin lotu dugula erakundetzea”, “balio handia” duena populismoei aurre egiteko. “Populismoa erakunde demokratikoen etsai porrokatua da” eta “honi aurre egiteko gaude herriaren askatasuna eta gure buruari emandako erakundeak zabalduz”, baieztatu du, desio bat opaz guztiei: “Maite dugu Gipuzkoa eta Euskadi osatzen duen gure herria. Herri-maitasunak eta -iragan onak gida gaitzatela politikan gabiltzanak eta herria, etorkizunean irauteko.”

Faksimila oroigarri

Bilkuran izan diren ehun eta hamalau agintari eta gonbidatuek faksimil bana jaso dute “Ipuscua” izena idatzita dagoen 1.025. urteko legatuaren kopiarena, Altzo-Azpiko Bilkura bereziaren oroigarri.

